

Amor Amor



ARTE PLASTIKO ETA MUSIKA EGONALDI DEIALDIA BALEAPOP #9



Testuingurua

Moï Moï kolektiboak, 9. aldikoz, BALEAPOP festibala antolatzen du, 2018ko agorrilaren 23tik 26ra Donibane Lohizunen, Dukontenea parkean eta hirian barnean.

BALEAPOP gertakari musikal eta plastiko joankorra da. Musika eta arte garaikidea uztartzen ditu, lagunartean eta besta giroan, egungo sorkuntzaren eta bilaketaren inguruan, belaunaldi guzientzat.

Mugaz gaindiko lurralde anitzean iragaten da, Euskal Herrian, ustekabeko guneeetan: hiriko parke batean, itsas bazterrean, merkatuan...

BALEAPOPe programa zorrotz eta hurbilerraza antolatzen du, originala eta irekia, memento bereziekin –batzuk sarrerekin, besteak urririk-.

Hastapenetik, festibalak musika eta arte garaikide hedatzaile eta ekoizle izan nahi du, arte alorrek elkartzeko xedearekin, elkarrizketa horren bitartez perspektiba eta egoera berriak eragiteko gogoz.

Festibala sorkuntza gazte garaikidearen mezenas egiten da. Alor aniztasuna beti gogoan, kolektiboa ere halakoa baita, musikaren eta arte garaikideen arteko elkarrizketa sortu nahi du. Aurten, lehen aldikoz, Baleapopen arte garaikide programa Dukontenea parketik aterako da, hiri barnera sartzeko, horretarako prestatuko diren guneeetara.

Helburuak & Betebeharrak

Alor anitzeko obra baten sortzea (musika & artea), Baleapop festibalaren 9. ediziorako.

Hautatu artistak / artista kolektiboak lankidetzan arituko dira, bi alorrak uztartuko dituen obra originalaren sortzeko, nahiko duten moldean eta bitartekoekin.

Aurtengo gaia “Sakasta” da.

Horrez gain, proposatu proiektuek gure Euskal Herriko lurraldearen berezitasuna kontuan hartzen ahalko dute; hots, obra euskal kultur erro bereziez bustitzen ahalko dute.

- Obra hiri erdiguneko gunen itxi batean (erakusleihodun lokala, denda...) ezartzeko gisan diseinatu beharko da.

- Performance proposamena ere pentsa daiteke, festibalean behin ala gehiagotan emateko.

- Bideo ekoizpen originala pentsa daiteke.

- Gogoeta editorial bat pentsa daiteke.

- Proiektuaren bitartekaritzari pentsatzea komeni da.

Egonaldiaren antolaketa

Egonaldia bi alditan egingen da:

- lehen aldia, sortzeko eta lekuei behatzeko.
- bigarren aldia, obraren ekoizteko eta hedatzeko.

Datak hitzarmena sinatzean zehaztuko dira.

Emanaldi publikoaren datak eta lekua

Agorrilaren 23tik 26ra, Donibane Lohizunen, Baleapop #9 festibalean. Estreinaldia agorrilaren 23an, ostegunarekin, arte garaikidearen ibilbidearen baitan.

Material eta diru baldintzak

Egonaldi horretarako, 2500 euroko diru kopurua dugu, orotara.

Obraren sorkuntzari, ekoizpenari eta hedapenari dagozkion ekintza guziak barne hartu beharko ditu, baita artistaren ordainketa ere.

Horrez gain:

- Lan eremua eskura, elkartearen bulegoetan, Garden Kolektiboan, Donibane Lohizunen.
- Ekoizpen gune bat eskura, hiri barnean,
- Proiektua daramatenei festibalerako sarrera (sarrera kopurua hitzarmena sinatzean zehaztuko da),
- Komunikazioa eta prentsa zerbitzua, egonaldi denboran eta festibalaren bitartean.

NB:

Norbere ibilgailua ukaitea zinez komeni da

Proiektuaren xehetasunak

4Hautagaiek bakarka ala kolektibo gisa ihardets dezakete. Alor anitzeko obra denez, musikari/ artista plastiko bikotea egokia izan daiteke, bai aitzinetik jada elkarrekin aritu badira, bai lehen aldiko elkartzen badira. Proposatu egutegia, hitzarmena sinatzean zehaztuko dena, segitu beharko da.

Txostenaren osagaiak

Onargarria izateko, hautagaitza txostenak hauek hartu beharko ditu barne:

- Curriculum vitae.
 - Artista bakoitzaren lan orokorrari buruzko irudi edo/eta soinu txostena.
 - Artistak proiektu honentzat dituen motibazioei eta asmoei buruzko oharra (ekoizpen xehetasunak, zirrimarra, simulazioa, pasarteak etab. gogotik hartuko ditugu).
- Bitartekaritza proposamenei buruzko oharra aurkeztea eskertuko da.
- Aitzinkontua.
 - Berme profesionala (MDA, AGESEA, SIRET zenbakia...)

Proiektu deialdirako hautagaiak

Nazionalitate oroko artista adindun guziak.

Xede hartzaileak :

Hartzaile guziak.

Hautaketa batzordea

Baleapop festibaleko lantaldea eta arte garaikide programako erakusketa arduradunak : Cécile Cano eta Audrey Teichmann

Egutegia

Hautagaitza aurkezteko epea:
2018ko martxoaren 30a, gauerdia
(e-mezuaren ordua lekuko)

Igortzeko moldeak

Proiektuen aurkezpen txostenak
e-postaz bidali behar dira, helbide
honetara: residence@baleapop.com

Prozeduraren antolaketa

- Hautagaitzen igortzea, 2018ko martxoaren 30eko gauerdia aitzin.
- Proposamenen azterketa eta eskaintzen hautatzea. Lantaldeak, hautaketa batzordeak hala erabakitzen badu, hautagaiak deitzen ahalko ditu, xehetasun gehiago eman dezaten.
- Festibalaren manaketa gutun ofiziala, hautatu moldeen arabera, eta hitzarmenaren sinatzea.

Partaideak

Arte Garaikide x Musika egonaldi programak Akitania Berriko DRACaren eta Euskal Kultur Erakundearen laguntza du.

Informazio gehiago nahi baduzu,
e-mezuz idazten ahal diguzu:
residence@baleapop.com

2015eko egonaldirako hautatua:

Polar Inertia kolektiboa; “Whiteout” murgiltze eta in situ instalazioa.



2016ko egonaldirako hautatua

Iouri Camicas eta Youri Fernandez, artista plastikoak; “How Many BPM?” monumentu-eskultura eta zuzeneko musika performanceak

2017ko egonaldirako hautatua

Sébastien Martinez, Benjamin Lafore arkitektoak
ETA Perez musikaria; “Folie for a song” murgiltze eta in situ instalazioa.





Moï Moï Elkartea / BALEAPOP Festibala
21 rue de la République
64500 Donibane Lohitzun

facebook.com/baleapopfestibala
instagram.com/baleapop
baleapop.com